



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Resolución 1/2022 ebazpena

Recurso 12/2021 errekurtsoa

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

RICOH ESPAÑA SLU (aurrerantzean, RICOH) enpresak kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen Foru Kontratazio Zentralaren 2021eko abuztuaren 31ko erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez ebatzi zen aipatu enpresa Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bidez inprimagailuen errentamendua eta mantentzea kontratatzeko esparru akordioa (X21010 espedientea) adjudikatzeko prozeduratik kanpo uztea. Horri dagokionez, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du, aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por RICOH ESPAÑA S.L.U. (en adelante, RICOH) contra el acuerdo de la Central de Contratación Foral de 31 de agosto de 2021 por el que se la excluye del procedimiento de adjudicación del acuerdo marco para la contratación del arrendamiento y mantenimiento de equipos de impresión a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa (expediente X21010), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Auzitegi honetako erregistro elektronikoa 2021eko irailaren 27an aurkeztutako idazkiaren bidez, RICOHk kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen ebazpen honen idazpuruan aipatutako egintzaren aurka.

BIGARRENA.- Auzitegiak Gobernantza Departamentuari igorri zion errekurtsoa, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedientea eta dagokion txostena eskatu zizkion (urriaren 1ean jaso ziren).

HIRUGARRENA.- SPKLren 56.3 artikulua betez, SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA SLri eta 2008 MAKELSAKO GIPUZKOA SLri helarazi zitzairen errekurtsoa, bost egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan zitzaizkion.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 27 de septiembre de 2021 RICOH interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acto citado en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- El Tribunal remitió el recurso al Departamento de Gobernanza y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron el 1 de octubre.

TERCERO.- En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, se dio traslado del recurso a SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA, S.L. y a 2008 MAKELSAKO GIPUZKOA, S.L. para que en el plazo de cinco días hábiles pudieran formular alegaciones.



SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA, S.L. enpresak alegazioak idatzi zituen, urriaren 5ean auzitegiaren erregistroan sarrera eman zion idatziaren bidez.

SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA, S.L. presentó alegaciones mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 5 de octubre.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Errekurtsoaren onargarritasuna

Admisibilidad del recurso

LEHENENGOA.- Xedea.

PRIMERO.- Objeto.

Errekurtsoa jarri zen lizitatzailer bat esparru akordio baten adjudikazio prozeduratik kanpo uzteko erabakiaren aurka (balio zenbatetsia: 5.939.497 euro).

El recurso se interpone contra la exclusión de un licitador del procedimiento de adjudicación de un acuerdo marco que tiene un valor estimado de 5.939.497 euros.

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio arloko errekurtso berezi bat aurkez zitekeen, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua, 1 b) eta 2 b) apartatuetan.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 b) y 2 b) del artículo 44 LCSP.

BIGARRENA.- Eskumena.

SEGUNDO.- Competencia.

Errekurtso hau ebazteko eskumena Auzitegi honi dagokio, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

HIRUGARRENA.- Epea

TERCERO.- Plazo.

Errekurtsoa SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartuta errekurritutako akordioa irailaren 6an jakinarazi zela.

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que el acuerdo recurrido fue notificado el día 6 de septiembre.

LAUGARRENA.- Legitimazioa.

CUARTO.- Legitimación.

Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, parte hartu duen lizitazio batetik kanpo uztea aurkaratzen baitu.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugna su exclusión de una licitación a la que ha concurrido.



Auziaren mamia

BOSGARRENA.- 2021eko ekainaren 22ko erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak kontratazio espedientea onetsi zuen Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bidez inprimagailuen errentamendua eta mantentzea kontratatzeko esparru akordio bat burutzeko. Esparru akordio hori bi sortetan banatuta zegoen: funtzio anitzeko ekipoak (1. sorta) eta inprimagailuak (2. sorta).

Klausula administratibo partikularren agiriko ezaugarri koadroaren 18.1 atalean jasota daude balio judizioen arabera esleipen irizpideei dagokien dokumentazioa aurkezteko arauak:

«Dokumentazioan adierazi beharko dira eskainitako produktuen ezaugarriak, eskatutakoekin alderatuta; hala, ulertuko da eskatutako ezaugarriak jasotzen ez dituzten eskaintzek ez dituztela ezaugarri horiek betetzen, eta, ondorioz, eskaintza baztertu egingo da, eta ez-egite horiek ez dira zuzengarri izango. "Betetzen du" motako baieztapen hutsa ez da ezaugarri betetzat hartuko; izan ere, eskainitako ekipoaren ezaugarri zehatza adierazi beharko da ekipoaren katalogoan, fitxa teknikoan edo fabrikatzailearen edo enpresa lizitatzailerean dokumentuan. Ezaugarriak betetzen direla pantaila argazkien bidez ere egiaztatu ahal izango da, hala dagokionean».

Honako enpresa hauek aurkeztu zuten eskaintza:

1. sorta

-RICOH ESPAÑA, S.L.U.
-2008 MAKELSAKO GIPUZKOA, S.L.
-KOPIDIN, S.L.
-SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA, S.L.

2. sorta

-AVALION INNOVATION &
TRANSFORMATION SERVICES, S.L.
-RICOH ESPAÑA, S.L.U.
-2008 MAKELSAKO GIPUZKOA, S.L.
-KOPIDIN, S.L.
-SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA, S.L.

Uztailaren 23ean, 2. artxibo elektronikoa ireki zen,

Fondo del asunto

QUINTO.- Por acuerdo de 22 de junio de 2021 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación para la conclusión de un acuerdo marco para el arrendamiento y mantenimiento de equipos de impresión a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa, dividido en dos lotes: equipos multifunción (lote 1) e impresoras (lote 2).

El apartado 18.1 del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) contiene unas reglas para presentar la documentación correspondiente a los criterios de adjudicación sujetos a juicio de valor:

“En la documentación deberán indicarse las características de los productos ofertados en relación con las prescritas y se entenderá que aquellas ofertas que omiten características prescritas no las cumplen, por lo que se excluirá la oferta, siendo estas omisiones no subsanables. No se aceptará como característica cumplida la mera aseveración del tipo “cumple”, sino que se deberá indicar la característica concreta del equipo ofertado en el catálogo del equipo, ficha técnica o documento del fabricante o de la empresa licitadora. Podrá también acreditarse el cumplimiento de características mediante pantallazos, cuando esto proceda”.

Presentaron oferta las siguientes empresas:

Lote 1

-RICOH ESPAÑA, S.L.U.
-2008 MAKELSAKO GIPUZKOA, S.L.
-KOPIDIN, S.L.
-SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA, S.L.

Lote 2

-AVALION INNOVATION &
TRANSFORMATION SERVICES, S.L.
-RICOH ESPAÑA, S.L.U.
-2008 MAKELSAKO GIPUZKOA, S.L.
-KOPIDIN, S.L.
-SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA, S.L.

El 23 de julio se procedió a la apertura del archivo



eta kontratazio mahaiak erabaki zuen proposamenak Zerbitzu Orokorretako Zerbitzura bidaltzea, azter zitzaten eta dagokion balorazio txostena egin zezaten.

Zerbitzu Orokorretako buruak abuztuaren 25ean emandako txostenean oinarrituta, Foru Kontratazio Zentralak, abuztuaren 31an egindako bileran, erabaki zuen prozeduratik kanpo uztea honako enpresa hauek:

-RICOH ESPAÑA, S.L.U.

-KOPIDIN, S.L.

-AVALION INNOVATION &
TRANSFORMATION SERVICES, S.L.

SEIGARRENA.- RICOH enpresa kanpo utzi da baldintza teknikoen agiriko bi baldintza ez dituelako betetzen. Alde batetik, baldintza teknikoen agiriaren 3. atalean makinaren ezaugarriak buruz arrekusitakoa:

“Ekipoak berriak izan beharko dira, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera merkaturatu beharko dira (fabrikatzailearen agiri bidez egiaztatuko da); beraz, ez da onartuko biregokitutako edo birmanufakturatutako ekipamendurik.”

RICOHk bere eskaintzan ez du adierazi taldeak bere ekipoak noiz merkaturatu dituen, eta ez du dokumenturik aurkeztu ere egiaztatzeko 2020ko urtarrilaren 1aren ondoren izan zela; hartara, klausula administratibo partikularren agiriko ezaugarri taularen 18.1 atalaren aurreikuspenean adierazitakoaren arabera baldintza hori ez betetzat eman behar da, eta ez dagokio akats hori zuzentzeko eskatzea ere, aukera hori berariaz baztertzeko baita aipatutako atalean bertan.

Bigarren, aurkaratutako erabakiak RICOH kanpo uzteko oinarri hartzen du baldintza teknikoen agiriren 2. eranskinean ezarritako ekipoen gutxieneko ezaugarriak ez betetzea, eta eranskin horren beraren arabera makinek bateragarriak izan

electrónico nº 2 y la mesa de contratación acordó remitir las proposiciones al Servicio de Servicios Generales para su examen y emisión del correspondiente informe de valoración.

Con base en el informe emitido en fecha 25 de agosto por el Jefe de Servicios Generales, la Central de Contratación Foral, en sesión celebrada el 31 de agosto, acordó excluir del procedimiento a las siguientes empresas por incumplir sus proposiciones las especificaciones exigidas en el pliego de prescripciones técnicas para los lotes 1 y 2:

-RICOH ESPAÑA, S.L.U.

-KOPIDIN, S.L.

-AVALION INNOVATION &
TRANSFORMATION SERVICES, S.L.

SEXTO.- La exclusión de RICOH se basa en dos incumplimientos del pliego de prescripciones técnicas (PPT). De un lado, el de la siguiente previsión contenida en el apartado 3 del PPT relativo a las características de las máquinas:

“Los equipos deberán ser nuevos y con fecha de lanzamiento posterior al 1 de enero de 2020 (se acreditará mediante documento del fabricante), por lo que no se aceptarán equipos reacondicionados ni remanufacturados”.

RICOH no indica en su oferta la fecha de lanzamiento de sus equipos ni documento alguno que acredite que ésta es posterior al 1 de enero de 2020, por lo que de acuerdo con la indicada previsión del apartado 18.1 del cuadro de características del PCAP este requisito debe darse por no cumplido, sin que proceda solicitar subsanación ya que esta posibilidad está explícitamente excluida en el propio apartado.

En segundo lugar, el acuerdo impugnado basa la exclusión de RICOH en el incumplimiento de una de las características mínimas de los equipos exigida en el anexo 2 del PPT, a tenor de la cual las máquinas deberán ser compatibles y disponer



behar dute eta kontrolagailuak izan behar dituzte dokumentuan aipatutako sistema eragileak dituzten ekipoetan instalatu eta lan egin ahal izateko. RICOH enpresak bere eskaintzan aurkeztu dituen katalogoetan adierazten dira sistema eragile bateragarriak, eta horien artean ez daude 2000 Profesional, XP profesional, Windows Server 2003 eta 2019 eta Windows Vista sistemak, guztiak ere baldintza teknikoen agiriaren 2. eranskinean aipatutakoak. Baldintza teknikoen agiriaren 4. eranskinaren arabera aurkeztutako ezaugarri teknikoen Excelean sartu du dagokion gelaxkan eskatutako ezaugarriaren transkripzio literala, baina adierazpen hori babestu behar da egiaztagiriren batekin (katalogoa, fitxa teknikoa edo antzekoa), eta katalogoak Excelean adierazitakoaren aurkakoa dio.

ZAZPIGARRENA.- Errekurtsogileak eskatu du aurkaratutako erabakia baliogabetzeko eta jarduketak atzera eramatea eskaintzak baloratzeko momentura arte. Laburbilduz, alegatzen du bera kanpo uzteak urratzen duela tratu berdintasunaren printzipioa, argudiatutako arrazoiak gainerako lizitatzaillei aplikatzeak guztiak ere kanpoan uztea eragingo lukeelako.

Alabaina, errekurtso idatzi luzean ez du ukatzen kanpo uzteko arrazoiak egiazkoak direnik. Bestela esanda, isilbidez onartzen du ez duela egiaztatu eskainitako ekipoak 2020ko urtarrilaren 1az geroztik merkaturatu direnik, baldintza teknikoen agiriaren 3. atalean ezarritakoaren arabera; eta onartzen du ez duela egiaztatu eskainitako makinak bateragarriak direnik 2000 Profesional, XP Profesional, Windows Server 2003 eta 2019 eta Windows Vista sistema eragileekin, baldintza teknikoen agiriaren 2. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Hartara, ez dago zalantzarik baldintza teknikoen agirian ezarritako baldintzak ez direla betetzen, eta hori egiaztatzeke ez da inolako judizio baliorik egin behar, nahikoa da eskaintza eta baldintza teknikoen agirian alderatzea eta, ondoren, agirietan ezarritako ondorio juridikoa ezartzea,

de controladores para poder ser instaladas y trabajar en equipos dotados de los sistemas operativos que allí se mencionan. En los catálogos que incluye RICOH en su oferta se indican los sistemas operativos compatibles y entre ellos no figuran los sistemas 2000 Profesional, XP Profesional, Windows Server 2003 y 2019 y Windows Vista, mencionados en el anexo 2 del PPT. En la Excel de características técnicas presentada conforme al modelo del anexo 4 del PPT sí incluye en la celda correspondiente una transcripción literal de la característica exigida, pero esa declaración debe estar respaldada por algún documento que la acredite (catálogo, ficha técnica o similar) y precisamente el catálogo contradice lo indicado en la Excel.

SÉPTIMO.- La recurrente solicita la anulación del acuerdo impugnado y la retroacción de las actuaciones al momento de valoración de las ofertas. En síntesis, alega que su exclusión vulnera el principio de igualdad de trato porque la aplicación de los motivos en los que se basa al resto de licitadoras habría determinado la exclusión de todas ellas.

Sin embargo, a lo largo del extenso escrito de recurso no niega en ningún momento la realidad de los motivos determinantes de su exclusión. Esto es, admite tácitamente que no ha acreditado que la fecha de lanzamiento de los equipos ofertados sea posterior al 1 de enero de 2020, como exige el apartado 3 del PPT; y admite igualmente que no ha acreditado que las máquinas ofertadas sean compatibles con los sistemas operativos 2000 Profesional, XP Profesional, Windows Server 2003 y 2019 y Windows Vista, como exige el anexo 2 del PPT.

El incumplimiento de estas exigencias contenidas en el PPT queda, por tanto, fuera de toda duda, y para constatarlo no es necesario realizar ningún juicio de valor sino, primero, llevar a cabo un contraste objetivo de la oferta con el PPT y, en segundo lugar, aplicar la consecuencia jurídica



alegia, prozeduratik kanpo uztea.

Izan ere, baldintza administratibo partikularren ezaugarri koadroaren 18.1 atalak hau xedatzen du: *“Dokumentazioan adierazi beharko dira eskaintako produktuen ezaugarriak, eskatutakoekin alderatuta; hala, ulertuko da eskatutako ezaugarriak jasotzen ez dituzten eskaintzek ez dituztela ezaugarri horiek betetzen, eta, ondorioz, eskaintza baztertu egingo da, eta ez-egite horiek ez dira zuzengarri izango”*. Eta administrazio klausula partikularren agiriko 28.2 klausulan ezartzen denez, *“eskatzen diren preskripzio teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak kanpoan utziko ditu kontratazio mahaiak”*.

Kontratazio Alorreko Errekurtsoen Euskadiko Organo Administratiboak 2019ko irailaren 13ko 144/2019 Ebazpenean dioen bezala, kontratazio organoari dagokio horniduraren xede diren produktuen ezaugarri teknikoak zehaztea, SPKLren 28.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ezin dira erlatibizatu, ezin dira alde batera utzi, ez eta kontratua adjudikatu ere horiek betetzen ez dituen eskaintza bati.

RICOHen errekurtsoak ez du eztabaidatzen aurkaratutako erabakian adierazitakoa, alegia, ez dituela betetzen baldintza teknikoak agiriko zenbait puntu.

Hartara, zuzenbidearen arabera da lizitaziotik kanpo uztea, eskaintako ekipoetarako ezarritako baldintza teknikoak ez betetzea berariaz aipatzen baita eskaintza kanpo uzteko arrazoi gisa.

Eta lizitaziotik kanpo uzte hori ez da inola ere errekurtsogilearen aurkako diskriminazio tratua gainerako lizitatzailen aldean, izan ere, RICOH enpresak ez bezala, 2008 MAKELSAKO GIPUZKOA, S.L.k eta SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA, S.L.k fabrikatzailearen ziurtagiri bidez egiaztatu baitute eskaintako ekipoak 2020ko urtarrilaren 1aren ondoren merkaturatu direla eta bateragarriak direla baldintza teknikoak agiriren 2. eranskinean adierazitako sistema

ordenada por los pliegos, que no es otra que la exclusión del procedimiento.

En efecto, el apartado 18.1 del cuadro de características del PCAP dispone con toda claridad que *“en la documentación deberán indicarse las características de los productos ofertados en relación con las prescritas y se entenderá que aquellas ofertas que omiten características prescritas no las cumplen, por lo que se excluirá la oferta, siendo estas omisiones no subsanables”*. Y en la cláusula 28.2 del PCAP se establece que *“las propuestas que no cumplan las prescripciones técnicas exigidas serán excluidas por la mesa de contratación”*.

Como recuerda el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de Euskadi en su Resolución 144/2019, de 13 de septiembre, las características técnicas de los productos objeto de suministro corresponde determinarlas al órgano de contratación de acuerdo con lo establecido en el artículo 28.1 LCSP, y no cabe relativizarlas, ni obviarlas, ni adjudicar el contrato a una oferta que las incumple.

El recurso de RICOH no discute el hecho de que su oferta incurre en los incumplimientos del PPT puestos de manifiesto en el acuerdo impugnado.

Siendo eso así, su exclusión de la licitación resulta conforme a derecho porque el incumplimiento de las características técnicas exigidas a los equipos ofertados viene expresamente contemplado en los pliegos como causa de exclusión de la oferta.

Y esa exclusión no supone en modo alguno un trato discriminatorio de la recurrente con respecto a las licitadoras que no han sido excluidas, por la sencilla razón de que, a diferencia de RICOH, tanto 2008 MAKELSAKO GIPUZKOA, S.L. como SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA, S.L. han acreditado mediante certificado del fabricante que la fecha de lanzamiento de los equipos ofertados es posterior al 1 de enero de 2020, y que éstos son compatibles



eragileekin.

con todos los sistemas operativos mencionados en el anexo 2 del PPT.

ZORTZIGARRENA.- Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

OCTAVO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ERABAKITZEN DU

ACUERDA

RICOH ESPAÑA SLU enpresak kontratazio arloan aurkeztutako errekurtso berezia ezestea.

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por RICOH ESPAÑA, S.L.U.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 11a / San Sebastián, 11 de enero de 2022.